


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2010eko UZTAILA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,3 jaitsi ziren 2010eko uztailean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2009ko uztailetik 2010eko uztailera) eraikuntzaren kostuak %1,8 igo dira.

2010eko uztailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %1,8 igo zen, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2010



(*) Gehikuntza uztailatzako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2010eko uztailean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,4 jaitsi dira.

Uztailean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek beherantzako bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,2ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,8koa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak intentsitate ezberdinak erakusten ditu. Etxegintzako lehengaien kostuak %1,3 igo dira eta Obra Zibilekoenak %4,4.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean Petrolio-fintzea (%19,9) nabarmentzen da. Ondoko sektoreetan ere igo dira prezioak: Metalurgia (%13,6), Energia elektrikoa, gasa eta ura (%5,4), eta Material elektrikoa (%3,2), besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2010eko uztaila 2009koaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Zurgintza (%-1,1), Metalezko artikulak (%-0,4), Ez-metalezko mineralak (%-0,3) eta Altzarigintza (%-0,1).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2010EKO UZTAILA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	117,8	-0,3	1,8	1,4
ERAIKINAK	117,4	-0,2	1,3	1,0
OBRA ZIBILA	119,0	-0,6	3,5	2,6
LEHENGAIEN KOSTUA	116,9	-0,4	1,9	1,4
ERAIKINAK	116,5	-0,2	1,3	0,9
OBRA ZIBILA	118,3	-0,8	4,4	3,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	121,1	0,0	1,4	1,4

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua